# LICHTBUS




LichtBus ilumina tu Bus

## 2. IDEIAREN JATORRIA.

Asko gara autobusa erabiltzen dugunok, eta konturatu ginen autobusean gindoazen egun batean toki bat identifikatzea saila dela batzuetan. Askotan toki bila joaten gara atzeraino, eta ez dagoenez, berriz ere aurrera joan behar gara eta autobusa martxan dago iadanik. Orduan, bururatu zitzaigun autobusean jesarleku bakoitzaren gainean argi gorri bat (okupatuta badago) edo argi berde bat (libre badago) jartzea, horrela askoz ere errazagoa izango litzateke eserleku bat aurkitzea.

## 3.IDEIAREN DESKRIBAPENA

Argia sensor batekin funtzionatzen du, libre dagoenean berde jarriko zen eta okupatuta dagoenean gorri; Parkinetako aparkalekuko argien bezala.

Garraio publikoa erabiltzen dutenentzat dago pentsatua proiektu hau, batez ere autobusa erabiltzen dutenentzat. Gehienbat ibiltzeko arazoak dituztenentzat edo pertsona nagusientzat balio du ideia honek, beraientzat abantaila bat izango litzatekeelako, gutxiago ibili beharko zutelako.

## 4.INFORMAZIO OSAGARRIA

Proiektu hau Bizkaiko autobusetan hastea pentsatu dugu, Bizkaibusean batez ere. Konturatu gara jende askok hartzen duela garraio publikoa bai ikastera joateko bai lanera joateko. Proiektua ondo doala ikusten badugu, Euskadiko

beste autobus konpainietara zabaltzea pentsatu dugu. Arazo bakarra, garraio publikoko konpainiak, beharrezkoa ez dela pentsatzea da, eta beraien autobusetan ez jartzea erabakitzea. Arrazoitu behar dugu, pertsona nagusientzat batez ere pentsatua dagoela. Haiek ez daukate estabilitate asko,

orduan autobusa martxan jartzen denean eta eseri gabe badaude, autobusaren etzealderaino joan direlako eta ez dagoelako lekurik, jausteko eta min hartzeko posibilitate gehiago dago.